


ANALISIA



Zer da doktrinatzea eta zer heztea?



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Kataluniari egokitu zaio orain, baina Euskal Herrian ere ohituta gaude, ikasketxeetan doktrinatzen dela entzutera. Beste behin, politikakeria egiteko arma bihurtu dute hezkuntza, eta irakasleen lan ona da jomuga. Baina hona sekretu bat: neutraltasuna ez da existitzen, ez fio kontrakoa saltzen duenarekin. Batzuentzat baloreetan heztea dena besteentzat manipulazioa eta doktrina dira, eta alderantziz.

Neutraltasunaren mozorroa darabilten hedabideak datozkit gogora, zintzo aurpegia jarrita proiektu "neutroak" aurkezten dituzten agintariak, lege eta epaiketa "neutroak". Eskolan ere, ez da berdina ikasgai –eta hizkuntza– bati edo besteari eskaintzea arreta gehien, Geografian mugak harago edo honantzago jartzea, Historian bertsio bat edo bestea irakastea, Erljioa edota Sexualitatea ematea/ez ematea erabakitzea...

Munduari zein betaurrekorekin begiratzten diogun –eta haurrei zein betaurreko janzten dizkiegun–, horra gakoa. Ez, irakaskuntza neutrorik ez da existitzen, ezta nahi ere! Nik behintzat, eta erreallitatean dagoen aniztasuna ezkatutu gabe, oinarritzko balore batzuk defendatzen dituzten irakasleak nahi ditut.

Onena, iritzi propioa garatzeko tresnak ematea

Eskolan, etxean, telebistan jasotzen duen eraginak lagunduko dio haurrari bere mundu-ikuskerara eratzten, garrantzitsua da beraz zein eduki eta balorek nahi dugun osatzea inguru hori, baina haurra ere borondate propioa eta erabakimena duen pertsona izanik, pentsamendu kritikoa eta iritzi propioa garatzeko tresnak ematea da egin dakioken oparirik onena, eta bereizten duena zer den doktrinatzea eta zer heztea.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gure osasuna arriskuan



Juan Mari Arregi

Ez badugu gure zaintzailea zaintzen –zu eta ni izan gaitzezke haren pazienteak–, ez baditugu gure erizainak zaintzen, nola zainduko ditugu gure gaixoak? Artatzen gaituzten horien osasuna, erizainena, arriskuan dago Euskal Herrian. Hori dio Osakidetzako erizainen Satse sindikatuak egindako inkestak. Galdekatutakoan %81,02ak nabarmentzen du bere lan-baldintzak kaskartu egin direla murrizketen ondorioz. %80,29ak pentsatzen du ez duela denbora nahikorik bere pazienteei arreta modu egokian emateko, eta %77,37ak uste du bere unitatean ez dagoela langile nahikorik lana ondo egiteko. Ondorioz, %62,04aren iritziz, herritarrei eskaintako zerbitzuak okertu egin dira.

Inkestak bi arazo larri erakusten ditu: erizainaren osasuna, eta osasun zerbitzuaren kalitatea. Biak elkarren eskutik doaz. Osakidetzak ezin du egoera kezagarri honen aurrean ezikusiarrena egin. Kontua ez da soilik makinetan eta osasun sistemetan inbertitu eta hauei publizitatea ematea. Inbertsio handiena zaintzaileengan egin beharko litzateke, erizainak baitira baliabide horiekin gaixoak zaindu behar dituztenak. Osasun zerbitzuaren kalitatea hobetu nahi badugu, bere pertsonalaren lan-baldintzak hobetu beharko genituzke derrigor. Hausnarketa horrek ezinbestean eta berehala ekarri beharko luke lantaldeak handitzea eta Osakidetzan lan egonkortasuna bermatea.

Administrazioak beti kezaka ari dira diru-sarrera gutxi dituztelako eta aurrekontua murriztu dietelako. Horrek ez du balio. Baliabideen banaketa lehentasunen arabera egin behar da. Gure erizainen eta gaixoen osasunak ez al du San Mames berriaren eta Anoetaren eraikuntzak baino gehiago balio? Baliabideak lortzeko, beharrezkoak dira aurrekontu sozialegoak eta ez hain enpresarialak.